

- Entzutekuak: Jon Basaurik herriko toponimia batzen diharau
- Zer berri: Ekainaren 28 ospatzeko egitaraua antolatu du Komite Arroxak

soraluzeko
hamabostekaria **267.** alea
2012ko ekainaren 22an

Pila-Pilean



Hiart Arluziaga alkatea
“Egoera delikatua da eta
jarraipen estua egin beharra daukagu”

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria

ihesi.com



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

argia
proiektua



UNAI TXURRUKA

ENEKO BERETXINAGA

GEREZI GORRIEN GARAIA

Aupa gaztia! Aurrekuan udaberrixa hasten zala eta, botere-suei luze iraungo dotsen alergiaren bat sortzeko ezer bururatzen ote jatan galdetu zostazun. Eta nik eraldaketia ezinbestekua zala erantzun notsun. Herri-tarrori sakrifizio eta pazientzia eskatzen dos-kue. Laster egoera hobe baten egongo garanan ilusino faltsuan fedia izatera kondenatu nahi gaittuzte. Baina ez gaittezen itsuak izan, erro-tik eraldatu ezian etorkizunik ez dogu izango.

Duela aste bat, eraldaketa lan honetan Euskal Herrixan izan dogun antolakunde garrantzitsuenetako batek bazoiala esan zoskun. Bere ibilbidian autokritika integrala egin ostian, egun SEGI tresna gisa agortuta daguala ondorioztatu dabe.

Indar polizialen garaipen gisa saldu nahi izan doskue berrixa. Baina, norbaitte benetan uste al dau SEGI polizialki garaituta daganik? Gainera, etxian ez omen dira geldittuko, bakoitzak bere eremuan lanian segiko baitau.

Erabakixa ausarta izan da. Izan be, 2012 ko Euskal Herrixa ez da duela 50, 33 edo duela 10 urteko Euskal Herrixa. Bizi doguna ez da krisi ekonomiko huts bat. Zibilizazio eta balore krisi oso baten aurrian murgildurik gare. Eta esandako eraldaketia lanerako tresna eraginkorra eukitzia biharrezkua dogu. Tresna hori eraikitzia izango da gazte mugimenduak datozen urtietan izango daben erronka nagusixa. Agur triste baten aurrian baino, gero arte ilusionante baten aurrian garela uste dot.

Besarkada bat Soraluzeko lehengo, oraingo eta etorkizuneko gazte eta errebelde guztieri! Eta gogoratu, borroka zirkuluaren antzekua dala, edozein puntutan hasi leike... baina ez da inoiz amaitzen.

“

“Borroka edozein puntutan hasi leike baina ez da inoiz amaitzen”

Unai Txurruka

“Gaztea zer da, zer da gaztea, galdera edo problema?”

Eneko Beretxinaga

”

Iepa politta! Sasoian sasoikua ei da onena, hala erakutsi doste etxian. Eta gaur zortziko albistia, arranopola, keixa sasoi bete-betian ailegatu da. Keixa garaixan, gerezi gorrixak despedida eginaz!

Bere lurretan gereziondua daukanak inork baino hobeto daki -ez da inor bera beste ernegatuko-, luma beltzdun mokofinek alerik ederrenak arra-arra lapurtzen dittuztela. Zenbat izan dira usteltzeko asmoz urte luzetarako otarran sartu dittuzten gerezi gorrixak? Zenbat beren zuhaitz eta aldaxketatik urruti daren plazetan egotera behartu dittuztenak? Luma beltza eskutan egunkaritako titular eta albistiak idazten dittuztenek, zenbat alez bete dittuzte beren sab/kelak?

“Gaztea zer da, zer da gaztea, galdera edo problema?” galdetuz, Ametsek botatako bertsuaren hasieria etorri jata gogora. Urte batzuk jua dira ordu-tik; tamalez, bertso amaieran emandako erantzuna ez da aldatu baina “gaztetxerik ez, etxerik ere eta kartzelan bizi dena”. Zibilizazio eta balore krisixa aittatu dittuzu. Azken puntu horrek lotura samurra egitera gonbidatzen gaittu balore aske eta aberasgarrixak bultzatu eta aberaskilluen asmuak zapuzteko ahalegina egiten dabenari emoten jakon ordainaz. Ustel askuak diran makina bat melokotoiri, lorak jarri izan dotsez zuhaitzetik jaustian, barru eskasa itxuraz apaintzeko intentziño-z. Transgeniko halakuak!

Gerezixen garaixa pasa bada, ez da gereziondua ihartu dalako, ezta uzta bigundu dalako be. Onena, sasoian sasoikuan alde egitia da. Onartu dute tarteka garratz, mingots edo gozoegixak suertatu dirala. Bejondeixela, jateko modukuak dira.

Goguan hartzeko

“Etorkizuneko errezeta guztion artean eraikitzea dagokigu orain”.

SEGI-k 2012ko ekainean esana.



GUTUNAK

Eskerrak Soraluzeko herriari

Joan den ekainaren 14an ehun lagun baino gehiagok Plaza Barriko elkarretaratzean egon nahi izan zuen. Senide eta lagunek euren babesa adierazi zuten eta 10 minutuko isiltasuna nahikoa izan zen justizia exigitzeko.

Horregatik, Placencia-Gomez familiak eskerrak eman nahi ditu jaso ditugun 500etik gora sindurengatik eta elkarretaratzearekin bat egin izanagatik.

Lupe Gomez

2011ko aurrekontuaren kontu orokorra

Ekainaren 6an izan genuen ohiko plenoan, 4. puntuan 2011ko aurrekontuaren kontu orokorraren onartzea bozkatu genuen. Puntua onartu egin zen. Aldeko 9 botu (BILDU eta EAJ/PNV) eta 2 abstentzioekin (PSE-EE). 2011ko aurrekontuaren itxiera negatiboa izan da. Konkretuki -34.000 eurokoa. Hau da, gastuak sarrerak baino handiagoak izan dira. Azken urte hauetan behin baino gehiagotan salatu dugu udaletxeko egoera ekonomikoa oso delikatu dela, datu hau dugu egoeraren adibide garbia. Guz-

ti hau kontuan edukita ondorengo galdera luzatzen diogu BILDURI. Zergatik orain, ez da egiten kontuen udal auditoria bat duela lau urte egin zen bezala? Nun gelditzen da orain besteei galdatutako gardentasuna? Orain badirudi ez dela komeni inork ezer jakiterik. Gure taldeak ordea puntualki jarraituko du udaletxeko kontuen berri ematen. Herritarrek jakin dezaten udaletxean zergertatzen ari den. Informazio gehiago www.pnvsoraluze.com

Soraluzeko EAJ/PNV udal taldea

Agur Segi!

33 urte dira gazte antolakundearen sorreratik. 3 urte hauetan Jarrai, Haika eta Segi milaka gazteren antolakuntza eta borroka tresna izan dira. Soraluzen asko izan gara belaunaldiz belaunaldi gazte arazoak borrokatu eta Euskal Herriaren askapen borrokan antolatu garenak, are gehiago herri askeak irudikatzen burututako gazte topagune eta gazte martxetan parte hartu dugunak.

Tamalez, errepresio gogorra jasan behar izan dugu. Bai Espainia eta bai Frantziar estatuek eskura zuten gerra estrategia guztiak erabili baitituzte gazteriarekin amaitzeko. Hala ere, oztupoak gainditu eta 3 urte hauetan, Euskal Herriko militantzia osoak hausnarketa burutu dugu eta aldi berean atera zaizkigun ga-

beziei buelta emateko baldintzak sortu ditugu. Esate baterako, iraultza gure baitan hasten dela ulertu eta Soraluzen antolatu genuen Matxinsalto eguna. Gaur da eguna harro eta ozen esateko ez gaituztela garaitu, hausnarketa amaitu, Segi tresna gisa agortuta ikusi eta agur esateko erabakia hartu dugula.

Argi daukagu gazteok garela oraina eta geroa eta Euskal Herri aske bat lortzera bidean, hartu dugun erabakia beste garaipen txiki bat dela. Azkenik, besarkada iraultzaile bat espetxeetan eta erbestean dauden gazte borrokalari guztiei! Aupa zuek! Maite zaituztegu!!

Soraluzeko Gazte Independentistak

pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari-
esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



bittartetik



Ubane Madera
Bagatozela!

Banentorren Mugarritik behera, derrepente ai! Shhhhhhh! Entzun nuenean. Begiratu, eta bi begi pare aurkitu nituen, belar artean. "Aupa!" Esan nuen. "Aupa" erantzun zidaten, ahots beheran. "Ondo zaudete? Bai", eta zutitu egin ziren. Bi emakume ziren. Galdetu nien: "Zer egiten duzue? Ba, ezkutuan, badaezpada. Badaezpada? Zer ba? Aspaldiko kontua da; derrigortuta gaude ezkutuan bizitzera, ia desagerrarazi egin gintuzten-eta. 1300. urtean hasi zen. Boteretsu ginen orduan: herritarren eztabaida eta haserreak konpontzen ahalegintzen ginen, beldurrak uxatzen eta gaixotasunak sendatzen. Erabaki nagusiak hartzen genituen, berdintasun eta justizian oinarrituta. Baina hori ez zen gustukoa boteretsu izan nahi zutenendako. Beste botere mota bat nahi zuten: interes partikularretan oinarritutakoa. Urteekin interes hori diru bilakatu zen, zuek hala ezagutzen duzue. Eta gure kontrako segizioa hasi zuten. Gutariko asko erre egin zituzten. Azkenean ezkutatzea erabaki genuen. Orain, bakarrik azaltzen gara ondo hartzen gaituzten lekuetan. Badira 500 urte Plazentziara etortzen garela, orain arte San Juan sua esaten zeniotek ekitaldira, uste dugu orain Udate gaua ipini diozuela. Herrian kamuflatuta dauden bestelako sorginekin elkartu eta primerako gaua pasatuko dugu. Guztiok gonbidatuta zaudete!"

Jon Basauri, herriko toponimia batzen

Udalak kontratatuta otsailean ekin zion Jonek toponimoak batzeari eta ordutik herriko historia arakatzeko dihardu buru belarri. Baserritarrekin elkarrizketak egiten dihardu eta beraien ahotik entzun eta mapan kokatzen ditu artxibo zaharretan aurkitutako herriko leku-izenak. Soraluzeko mapa toponimikoa osatze aldera, momentuz 1500 leku-izen batu ditu.

Zein da zure lana?

Soraluzeko erreken, mendien, lur zatixen, basarrixen, kalien eta etxien izenak batzia eta ahal diranak mapa baten kokatzea. Gero, Euskaltzaindiakuen laguntzaz, honek arautu eta behin betiko finkatzeko helburua be badaukagu, herritarrek erabiltzeko moduko leku-izenen mapa osatuz.

Izena duena bada. Zegaittik da garrantzitsua herriko toponimia batzia?

Herrixan historia, orografia eta bertan bizi izan diran pertsonen barri emoten dabelako; hemengo euskerian bilakaeria erakusten dabelako eta batez beleku-izenok behin betikoz arautu eta finkatu bihar diralako

Toponimuak batzeko lanetan hasteko izan dozu iturburu zehatzik?

1951ko "Amillaramiento de rustica y pecuaria" liburua. Bertan datoz urte hartako baserritarren jabetzak eta lur sailen izenak. Gero, artxibo zaharretan toponimo bila hasi nintzan; hori lan hori luze juango da ondiok. Eta oin dihardut landa lana esa-

((ENTZUTEKUAK))



Munetako edo Arantzazuko haizetan jasotako irudia

ten jakona egiten: basarritarreri lur zatixen izenegaittik eta kokapenagaittik galdetzen.

Zein auzotako toponimuak batu dituzue?

Ezozikuak bukatzeko pare bat basarri falta jataz eta Irure auzuan hasitta nago elkarrizketak egiten.

Deigarrixa egiten jatzun toponimoren bat badago?

Polittak eta kuriosuak asko dare, batzuk aukeratzen hasitta: Apatiolartexaraitxi, Millaingurukua, Otsoatitzekan (oso aqicequan idatzita XVI. mendean), Kalegoena (gaur egungo Santa Ana kalia), Askatasuna (etimologia aztertzea), Frantsesa, Legarda-koetxetxokotzarabarrena...

Ahozkatzeko zailak. Artxibo zaharretan irakurtezinak?

Paleografixa ulertzia da lan honek daukan adarrik zailena. Jabi Elorzak horretan trebatzen lagundu dosta eta berari esker XVI. gizalditik -XIX. gizaldirako agiri zaharretako informazinua eskuratzen dihardugu.

"Toponimuek hemengo euskerian bilakaeria erakusten dabe"

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

H.NOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Zine foruma aurkeztuko du Komite Arroxak

Gay, lesbiana eta transexua- len eskubideak aldarrika- tzeko eguna gertu dagoen honetan, sexu askatasuna herriko bazter, gune eta inguru guztietara zabaldu nahi du Behin Behineko Komite Arroxak, "lesbofobia, homofobia eta transfobia" guztiak salatzearekin batera. Herri txikietan sexu aukera ezberdinek izan ahal dituzten mugak gaintu nahi dituzte: "Aurten- goan azentua ikusgarritasunean, bisibilizazioan nahi genuen jarri."

Gurea bezalako herrietan mari- txu, bollera eta trans pertsonok izan dugun mugetako bat errefe- rentzia falta edo eskasia izan da". Hori gaintitze aldera, beharrez- koa ikusten dute esperientziak eta afektuak trukatzeko gune bat eraikitzea. Irailetik hasita, hilean behin "zinema arroxak" ekimena jarriko dute martxan, Gay, Lesbiana, Transexual edo Transgenero gaiekin zerikusia duten pelikulak emango dituzte eta aprobetxatu nahi dute ez- tabaidatu, solastu eta elkar to- patzeko. Ekimena aurkeztu eta ekainaren 28ko aldarrikapenak bideratzeko ondorengo egitaraua prestatu dute:



Ekainaren 28a iragartzeko kartelaren irudia.

Hilak 28, eguna


19:30ean ELKARRETARATZEA, Plaza Barrixan
 20:00etan PIKOTEOA, Gaztetxean
 21:30ean ZINEMA ARROXA ekimenaren aurkezpena, Zinean
 22:00etan PELIKULA, "Shortbus", J.C. Mitchellek zeuzendua
 Informazio gehiago: komitearoxa.wordpress.com

Nagusien danborradako entseguak hastear

Santiago – Santa Ana jaiak danbor hotsez janzteko asmoz ekainaren 26an batuko dira lehenengoz nagusien danborradako kideak, arratsaldeko 20:00etan frontoian. Lehenengo entsegua izango da aipatutakoa eta as- tero, martitzen eta eguenetan batuko dira. Entsegu orokorrak berriz, uzta- laren 17an eta 19an egingo dituzte.

Lapurreta Itxaropenan

Eguazteneko goizaldeko 5:15ean bi- zilagun batek jubilatuen elkartearen za- ratak entzun eta Ertzaintzari abisua eman zion. Hauek lokalera hurbildu orduko lapurrak ihes eginda zeuden. Lapurreta egiteko elkarteko ate na- gusia indarrez zabaldu eta barruko bi ateara ere apurto zituzten. Itxaropena- ko lehendakaria den Callesek azaldu duenez, lapurrek ONCEko loteria era- man zuten tabernatik eta bulegotik 80 euro eta elkarteko giltzak.



Txakur kakengatik kexa

Herritar batek harriduraz ikusi du zela Oleako Zubia txakur kakek be- teta duten. Jabeek txakur kakak ja- sotzen ez dituztela eta kexu da, eta erantzuleei brigadako zein udaleko ordezkari, hartu behar dituzten neurriak hartzeko eskatu nahi die.



Santanderrera irteera

Ekainaren 15ean egunpasa ederra egin zuen Itxaropenako erretiratu talde batek. Goizean goiz 55 lagun Soralezetik abiatu eta autobusez bide-erakusle baten laguntzaz ezagutu zuten Santan- der. Gosetuta, Astille- roko erretegi batean bazkaldu zuten eta ondoren, prest zuten dantzaldiak alaitu zien arratsaldea. Da- torren hilean Biarritz bisitatuko dute.



Iturria: Itxaropena

MAI-ko APLIKAZIOA ZURE MUGIKORREAN!
 Eskuragarri ere:

<http://www.maltuna.com>

MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

MATRIKULA

Uztailaren 5etik 11ra.

Ibargarai, 1
 20570 Bergara
 943 76 38 40/943 76 24 91

Orduetgia
 08:00etatik 14:30etara
 15:30etatik 18:30etara

www.maltuna.com
maltuna@sarenet.es

Elkarretaratze jendetsua Uneberri S.L. enpresa salatzekeo

Herri bilgunea deitu du Herrirak

Euskal Preso Politiko eta Iheslarien aldeko mugimenduak herritar denak ekainaren 29an, barixakua, arratsaldeko 18:30ean Zinean egingo den batzar irekira gonbidatzen ditu. Herrira mugimenduak azken hilabeteetan egindako lanaz hausnartzeko tarte izango dute bertaraten direnek eta etorkizuna lantzeko urratsak emango dituzte. Besteak beste Santiago – Santa Ana jaietako aldarriak izango dituzte hizpide eta aurreragoko asmoak ere zehazten hasiko dira.

Soraluzetarrak aire garbien alde

“Aire garbiak bira nazan” lemapean milaka lagun batu ziren aurreko domekan Donostian. Herritik autobus bat bete zen Gipuzkoa Zero Zabor-ek bultzatutako ekitaldira joateko. Errauskailuaren kontrako haize errota baten mosaiko erraldoi eta koloretsua egin zuten, “errauste plantak ekarriko lukeen etorkizun grisaren aurka”.



Iturria: Gipuzkoa Zero Zabor

Sagarerreka eta Baltegietaoekin bilera

Udako oporren aurretik azken auzo bilera egingo du udalak. Zita ekainaren 27an izango da, 19:00etan udaletxeko Saio Aretoan eta honetara Baltegieta eta Sagarrekekako bizilagunak dauden gonbidatuta.

KZguneak telefono zenbaki berria du

KZgunean telefonoz aldatu eta zenbaki berria dute: 943 02 36 79. Harremanetan jartzeko tutor.soraluze@kzgunea.net helbidera ere idatz daiteke.

Joan den eguenean ehun lagun inguru batu ziren Lupe Gomez herritarrak eta haren familiak deitutako elkarretaratzean, Uneberri S.L. promotorea publikoki salatzekeo. Kaltetuek eta senide eta lagunek eusten zituzten pankartetan hau irakurri zitekeen: “Gure aitaren etxea defendatuko dugu”, “Uneberri S.L. erantzule. Iruzurrik ez!!” eta “Promociones Uneberri S.L., iruzurgileak. Justizia eskatzen dugu”. 2008. urtean Uneberrik kiebra jo zuen eta, erosleek ipinitako dirua edo eta enpresarekin hitzemandakoa galdu egin zuten. Joan den astean beste eraikitzaile batek berrekin zien lanei. Momentuan, etxebizitza

tzak Donostiako Arkitektoen Kutzaren eskuetan daude eta udala harremanetan da eurekin. Ezer zehaztu gabe, “iruzurra” salatzekeo ekimen gehiago egingo dituztela aurreratu dute kaltetuek.



Kaltetuek, senideek eta lagunek osatu zuten elkarretaratzea.

Eguzkiñe Aldazabalek irabazi du jaietako kartel lehiaketa

Aurtengo festek badute kartel iragarlea, Eguzkiñe Aldazabal herritarrak egin. Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzan saritu dituzten egileak hauek dira: Lore Leturiondo, Sergio Perez eta Btisan Elkanouni. DBHko saria Alejandra Jauregik jaso du.

Oregik eta Sousak jaurtiko dute jaietako suziria

Uztailaren 25ean Santiago – Santa Ana jaietako txupina jaurtitzeko ardura Tere Sousa idazleak eta Jokin Oregi idazle, aktore eta antzerki zuzendariak izango dute. Biek urteetan egin duten ibilbidea aitortu nahi izan die herriko jai batzordeak eta gonbitea harriduraz baina pozik jaso dutela aipatu dute biek.



Tere Sousa eta Jokin Oregi, txupina botako dutenak.

Aurtengo jaietako kartel iragarlea.



Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Behea
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jlibarza@infosegocio.com

TEL: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikarra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Ion Murgizu Pinturak

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Hiart Arluziaga Ariznabarreta alkatea

“Aurreko urtetan pilatutako zorrari aurre egiten dihardugu”

2011ko hauteskundeetan aurkeztu zen Bildu alderdiaren zerrendaburu. Bozka gehien (880 botu, %40, 94) jaso zuen hautagaia izan zen eta lehenengo emakumezko alkatea izan da ordutik. Kontatu digunez, diru kontuak egoki kudeatzea izan da udal taldearen erronka nagusia. Honetaz eta legealdia agortu bitarteko planez galdetu dio Pil-pileanek eta udaleko oposizioak.

Urtebete egin dozue udala gidatzen. Zein da udal gobernu taldia orainarteko jardunaz egiten daben balorazina?

Kontutan edukita daukagun egoera ekonomikua, egingo lanan balorazio ona egiten dogu. Talde sendua osatu dogu. Hasiera batetik kudeaketa ekonomikua lehentasunez hartu dogu.

2011ko itxiera on bat lortu dogu eta 2012ko aurrekontuak onartzea lortu dogu. %11ko jaitsiera eduki izanak gastuak berrikusi eta murriztea ekarri dau. Herritarren zerbitzuetan ahalik eta gutxien eragingo zeben aurrekontuak planteatu genduzen eta uste dogu hori lortu dogula.

Egoera ekonomikua okerrera egin dau. Gaurko egunian zein da udalan egoera ekonomikua?

Horren ondorioxo udalan diru sarrerak jaitsi egin dira. Zergen bilketan eragin dau, eta Aldundixan be, sarrerak murriztiak Foru Funtzian eragin dau. Guzti honekin aurreko urtetan pilatutako zorrari aurre egin behar dotsagu. Egoera delikatua da eta gastuan etengabeko jarraipen estua egin beharra daukagu.

“Lanbideko dirulaguntzeri esker, bost langile kontratatu ahal izan dittugu”

EAJn Udal Taldeak auditoria egitteko eskatu dau.

Ez dogu ulertzen zertara datorren. Aurrekontuak lantzen hasi ginan momentutik diru kontuen informazio zehatza jaso dabe. Momentu honetan oso interesatua dala iruditzen jaku.

Langabezia tasa oso altua da herrixan. Badauka udalak enplegua sortzeko egitasmorik?

Lanbideko dirulaguntzeri esker, bost langile kontratatu ahal izan dittugu: euskal toponomia aztertu, argazki zaharren artxiboa osatu, lehen sektoriari begirako lanketa bat egitteko langile bana eta brigadarako bi lagun. Lanbiden dirulaguntzari esker eskualdeko enplegu planak garatuko dittugu eta datorren urtian horren arabera ekingo ditugu bat zehaztuko dogu.

Zaborren gaixa pil-pilean dago. Pentsatzekua da erraustegixan aurka eta atez-atekuan alde egongo dala Soraluzeko Bilduk gidatutako udal gobernu.

Gure helburua birziklapen tasa altuenak lortzea izango da eta momentuz atez-ateko bilketa da hori bermatzen dabena. Danok birziklatuko bagendu ez litzake beharrezkoa izango. Gu prest gare alderdiekin eta herritarrekin emon biharreko eztabaidak emoteko. Ez dogu errauskailurik nahi, Gipuzkoa garbi bat nahi dogu.

Zelakua da oposizinuakiko harremana?

Alkarlanerako proposamena egin gontsen eta ez zeben onartu. Aurrekontuak lantzeko eskaintza egin gontsen eta ez dogu ekarpen zehatzik jaso. Oposiziño eraikitzaileago bat eukitzea gustatuko jakun eta hala izatea espero dogu.

Zelakua izan da urtebete honetan alkate lanetan izandako esperientzia?

Erronka potolua izan dan arren ilusinoz jarraitzen dot. Taldeko lanean sinisten dot eta uste dot gurean lan txukuna egiten dihardugula. Udal langileen inplikazina be eskertzekua da eta herritarrak ezinbesteko bidelagunak dira; aurrera egitteko euren kezka eta ekarpenak behar dittugu.



Arloz Arlo

Hezkuntza azpiegiturak hobetzia proposatu zenduen.

Institutua berritzeko proiektua hezkuntza delegaritzak geldi eduki dau eta udaletik egin behar ziran arau aldaketak egin ostean berrekiten saiatuko gara. LHn, Estazinoko etxebizitza berrixetako lokaletan jangelia ipintzeko delegaritzan erantzunan zain gare. Haurreskolan, moduluan kontu guztia dala eta, matrikulazinuak beheruntz egin dau eta azkenian ez dago horren beharrik, 21 plazaatik 9 dare libre.

Euskara biziberritzeko asmuakin euskara lehentasunezko bihurtzeko neurrixak iragarri zenituzten.

Erabilpena sustatu nahi da. Gaztetxokua udazkenian zabalduko da eta bertan dinamika euskalduna bultzatuko dogu, euskarazko filmak eskaini dittugu, bertso eskola martxan dago eta herriko toponimia jasotzeko azterketa egitten dihardue.

Kulturana?

Merkatuan lokalak egokittuko dira kultur taldiendako eta herritarrendako bilera gelak ipiniko dira baliabide tekniko danekin.

“Jangela ipintzeko hezkuntza delegaritzan erantzunan zain gare”

Maisuen etxiak azkenean banatu dira...

Alokairu sozialera bideratu genduzen etxebizitza danak esleitu dira, arazo honi irtenbide bat emonaz.

Parekidetasun aldetik helburuak betetzen diharduzue?

Parekidetasun planan barruan, azaroak 25 eta martxoak 8ko egunak indartzea erronka bat izan da. Emakumeen Topagunea be hor dago egitarau majoak sortuaz.

Uholdiak eragindako kaltiak konpontzeko lanak zela dare?

Irureko lanak hasi dira lanen erantzukizuna Bidegik bere gain hartu eta gero. Gainontzeko auzoetako kalteak konpontzeko Aldundiko dirulaguntzen zain gaude.

Norabide aldatetagaikitte kexak entzuten dira ondio herritarren artian.

Aurreko legegintzalditik datorren kontua da, baina zintzoki uste dut herriguneari mesede egin diola.

Oposizioaren galderak

EAJ Udal Taldea

Urte bete ondoren, zergak igo, udal zerbitzuak murriztu eta 2011ko itxiera -34.000 eurokoa izan da, hau al da Bilduk soraluzendako aldarrikatzen daben kudeaketa ezkertiar eta aurrerakoa?

Galderan aipatzen diran zerga igoera eta udal zerbitzuen murrizketak ez dauke eraginik 2011ko aurrekontuan, 2012ko aurrekontua doitzeko planteatu dittugu. Beraz, aparte erantzun biharreko kontuak dira. 2011ko itxieran zenbakia negatiboa izanagatik, gure ustez itxiera oso ona lortu dogu urte bukaeran Aldunditik esan zoskuelako 282.000 euro itzuli bihar genduzela eta ia dana itzultzeko gai izan garalako.

Kudeaketa onan ondorixoz lortu dogu hain defizit txiki-xakin urtia bukatzia. 2012ko aurrekontuak doitzeko lan asko egin behar izan dogu, 2011n baino 300.000 euro gutxiago genkazelako. Neurri asko hartu behar izan dittugu, tartian zerbitzu murrizketa eta zerga igoera batzuk be egon dira, bai. Baina egoera oso delikatua izanagatik 2012ko aurrekontuetarako ariketa oso ona egin dogula uste dogu.

PSE-EE Udal Taldea

Zuek beti defendatu izan dozuen udal politikatik, zela ikusten dozue udal gipuzkoarren zorra haundiagotu biharra, Foru Funtseko finantziazinorako dirua Aldundixari itzultzeko?

Aldundixan egoera ez da bape ona. Aurreko legegintzaldixetako kudeaketan ondorioz altxortegixa diru gutxikin eta zorrez gainezka dago. Ondorixoz, egun agintian darenak udalak estutu beste erre-medixorik ez dabe euki. 2012ko estimazinuak be ez dira aurreikusittakuak: gure kasuan aurtenguan be 200.000 eurotik gora itzultzera bihartuta egongo gara seguru aski.

Egoera horri aurre egittek bakoitzan interesak defendatzen bakarrik egon barik, erakundien alkarlanian sakondu biharko dogu. Horrek ez dau esan nahi erakundien aurrian isilik egon bihar dogunik. Baina ulertzen dogu gure udalerrixan kudeaketan arduradun nagusixak udaletxian garela eta geuk atera behar dittugula nagusiki babak heltzetik.

ZER TRIZTEN DOTSAZU?

Urtebete joan da Bildu Udal Gobernu Taldea osatzera heldu zenetik. Herritarrak igarri ote du aldaketarik bere egunerokoan?

Ze balorazio egitten dozu Bilduren agintaldixaren lehenengo urteurrenian?

BEÑAT CATALAN



Denboragutxi pasatuda, baina nik uste, gauzak txarrera behintzat ez dirala jua. Herrixari buelta osua emon biharrari, aparkatzeko eta abar, irteera bat emon bihar jako. Bestela, alkatian ni neu gustora nago eta uste dot herrixagaitik gehixago egitten dabela.

PAQUI RAMIREZ



Urte betian aldaketa ez da bape igarri. Egixada, dirurik ez badago askorik be ezin leike aldatu kontua. Nik bestela, egunerokuan eta, ez daukat inungo kejarik, trankil asko bizi naiz.

MERTXE RASCON



Ez dakit ba! Zirkulazio aldaketaikin aparkalekuak gehitu dira baina danak leku berdinetik sartu eta urtetzia ez jata gusatzen. Peatonalizazinua positibua da, baina pibotien manduena, larrialdixetan pixkat arriskutsua pentsatzen jata.

XABIER ALBERDI



Nik uste ahal daben onduen egin dabela. Ekonomia dagan moduan egonda gauza asko ezin leikez egin... Eta nahiz eta aurrekuak gaizki egin, ezin jakin hurrengiak hobeto egingo daben!

Eman zure iritzia sarean



Javier Alonso Zelaeta
 MEDIKU ESTOMATOLOGOA
 K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

GILA TABERNA

GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
 ETA PINTXO
 GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

MENDIZABAL
 okindegia

Kalebarren 10
 T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
 T. 943 75 13 99

SORALUZE

ARRANO
 tabernia

etorri eta gozatu
 giro euskalduna eta sanua

etxera

Nagusiak txokolate fabrikara

Mesedeetako Amaren egoitzakoak txokolate fabrikara joan ziren egun-pasa. Bertako langileek txokolatearen fabrikazio prozesua azaldu zieten, harri-errotan ale bakoitza xehetzen dutenetik moldeetan sartzen duten arte.



Iturria: Mesedeetako Amaren Egoitza

Kultur ekitaldien agenda**Gaur, ekainak 22****MUSIKA**

Musika eskolako en ikasturte amaierako kontzertua
22:00etan, Plaza Zaharrean

Ant: Soroluzeko Musika Eskola

Ekainak 23, zapatua**UDATE GABEKO JAIA**

20:00etatik aurrera, Plaza Barrixan

Ant: Pil-Pilean Kultur Elkarte, Urrats Dantza taldea eta Soroluzeko txistulariak

Ekainak 27, eguaztena**HITZALDIA**

"Zaintzaileak eta zainduak Soroluzen: Gertuko errealitatea."
Yoana Azpitarte eta Idoia Legarretaren eskutik 18:30ean, Zinean

Ant: Udaleko Parekidetasun Batzordea

AUZOTARREKIN BATZARRABaltegieta eta Sagarrerreka
19:00etan, Udaleko Saio Aretoan

Ant: Soroluzeko Udala

Ekainak 28, eguena**LESBIANA, TRANS ETA GAY ASKAPEN EGUNA**

Ant: Behin behineko Komite Arroxa

Ekainak 29, barixakua**DOKUMENTALA.**

"Gazta zati bat" (Zuz: Jon Maia)
22:15ean, Zinean

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

Udate gabeko jaia bihar

Egutegirik existitzen ez zen sasoieta natura erreparaturaz ohartzen ziren denboraren joan-etorriaz. Ilargiaren eta eguzkiaren zikloak aitzakia hartuta antolatzen zituzten festa eta ospakizunak. Aurten tradizioaren urratsei gogor heldu nahi izan diete Pil-pilean Euskara Elkarteko, Urrats dantza taldeko eta Soroluzeko txistulari

taldeko lagunek eta urteko egunik luzeena eta gaurik motzena biharkoa dela ospatzeko egitarau magikoa prestatu dute barrenak misterioz bete nahi dituztenentzat. Sua, dantza eta edabe magikoa ez dira falta izango udako solstizioaren ospakizunean.

Egitaraua:20:00etan **TXISTU POTEOA**, txistulariekin.21:00etan **SORGIN AFARI** partehartzaila, Plaza Barrixan.23:00etan Udate gaba **ANTZEZPEN HERRIKOIA**.Ostian, **SORGIN DANTZA**.

Eta gero... oroitzen txarrak sugarretara!

Gauerdian, **EDABE MAGIKOA** musikaz goxaturik.

Berrehun bertsozalek jarraitu zuten Gaztetxeko bertso saioa

Arrakastatsu joan zen Plazatik Gaztetxera txapelketaren bigarren finalerdia. Zortzi bertsolari lehiatu ziren, tartean Beretxinaga soroluzetarra. Lehen zatia beteta, Nerea Ibarzabal eta Xabat Gallettebeitiak jaso zituzten epaileen puntuak. Entzuleek ordea, nahia go izan zituzten Mikel Olaizola eta Eneko Beretxinaga. Beraz, buruzburukoa jokatu eta Nerea eta Xabat nagusitu ziren. Bikotea zuzenean sailkatu da finalera, baita Beretxinaga eta Olaizola bikotea ere.

Sarrerak salgai

Ekainaren 30ean bazkalostean Eibarko Gaztetxean jokatu den finalaz gozatu nahi duenak sarrerak salgai ditu 5 eurotan Arrano tabernan.



Mikel Olaizola eta Eneko Beretxinaga finalean izango dira.



Disainua eta Sormena

Poligono Amillaga, n° 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak



Txoko kafetegia

Kafe ederra hartzeko
txokorik onena!

Kalebarren 22, behea,
Soroluze, Tel: 943 75 17 89

Asteburu betea herriko gimnastentzat



Herriko gimnasta txikiak Eibarren dantzan

Urte osoan ikasitakoa erakusteko asmoz Eibar eta Soralezeko hirurogei gimnastek kolorez eta dantzez bete zuten aurreko zapatuan Arane kiroldegia. Koreografia ikusgarriak eta mugimendu zailak gailendu ziren erakustaldian eta ikusleen txalo zaparradek berotu zuten saioa. Domekan berriz herriko gimnastek Eibarko San Juan erakustaldian hartu zuten parte.

Ezoziko taldea nagusi herri kirolean



Arrixatarrak trontza lanetan.

Jende mordoxka urreratu zen hilaren 10ean Ezozki eta San Andres auzoen arteko herri kirol desafioa ikustera. Azkenean Ezoziko taldea gailendu zitzaion San Andresko taldeari lau eta biko emaitzaz irabazita. Kaskara batzen eta ingudean San Andreskoak izan ziren nagusi; zaku karreran, txingetan, trontzan eta sokatiran berriz, Ezozikoak. Buel-tako saioa San Andresko jaietan jokatu dute, uztailaren 7an.

Mendi taldekoak Errioxara

Udako oporren aurretik egingo duten azken irteera izango da bihartik domekara bitartean egingo dutena. Goizeko 8:30ean Estaziño kalean batu eta Lugar del Riora abiatuko dira herriko ehun eta hogeita hamabost

lagun. Bertatik Ezcarayraino dagoen ibilbidea oinez egingo dute eta deskantsua hartzeko asmoz, Molino Viejo aterpetxean hartuko dute ostatu. Hurrengo egunean San Lorenzo mendira abiatuko dira mendizaleak.

Uztailean jokatu da Debabarrena BTT martxa

Uztailaren 1ean Karakate inguruaktxirindulariz beteko dira, egun horretan jokatu baita Debabarreneko IV. BTT Martxa. Izena ematen dutenek Karakate zeharkatzen duten bi ibilbide izango dituzte aukeran: bata laburra, 25 kilometrokoa eta bestea

luzea, 45 kilometrokoa. Partaideen zain dauden lagunentzat spinning saioak ere antolatu dituzte. Izen ematea ekainaren 26a baino lehen egin behar da www.debabarrenaturismo.com webgunean dagoen eskuorria betez.

EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Merino II	22
Xala – Laskurain	17

FUTBITO TXAPELKETA

5. jardunaldia

Hala dok ala – Kastakuak	3-7
Malas Hierbas – Fronton Team	5-7
RKC United – Artifices	11-2
Super Torpedos – Gaztetxea	14-5
Eusko Label – Costo de Marfil	10-5
Grindel – Karrik Ori	6-11

AGENDA

PELOTA

Domeka 24, 16:45ean Miribillan (etb1)

Xala – Laskurain
Berasaluz VIII – Beroiz

FUTBITO TXAPELKETA

Ekainak 23, 6. jardunaldia

10:00etan Malas Hierbas – Kastakuak
10:00etan Grindel – Costo de Marfil
11:15ean Emoixok Lasku – Hala dok ala?
11:15ean Sahara – Eusko Label
12:30ean Fronton Team – Artifices
12:30ean Karril Ori – Gaztetxea

Ekainak 30, 7. jardunaldia

10:00etan Malas Hierbas – Hala dok ala?
10:00etan Grindel – Eusko Label
11:15ean Artifices – Kastakuak
11:15ean Gaztetxea – Costo de Marfil
12:30ean Emoixok Lasku – RKC United
12:30ean Sahara – Supertorpedos

ZUZENKETA

Aurreko alean "Hiru handiak" mendi froga egin zuten soraluzetarren izenak argitaratu genituen. Deskuiduz frogan parte hartu zuen emakume bakarraren izena, Maite Leterena, sartzea ahaztu zitzaigun. Lerro hauen bitartez barkamena eskatu nahi dugu sortu ahal izandako eragozpenengatik.



ZORION AGURRAK



Mayi Garmendia

Ekainan 19xan 11 urte!
Zorionak eta egun zoragarria
pasa diezula! Askok maitte
zaiztuan lagun baten partetik!



Yago Donoso

Ekainan 23an 3 urte!
Zorionak polittori eta muxu
erraldoi bat guraso eta Joelen
partez!



Zaloa Garcia Rodriguez

Ekainan 24an 4 urte!
Zorionak poxpolin!
Ilargirainoko muxu bero bat,
etxeko erreginentzat!



Loli Nieves eta Mireia Lamariano

Ekainan 19xan eta 21ian
urtiak betetzen ditzuzelako,
muxu goxo pilaaa etxekuen partez!



Imanol Altuna

Ekainan 13an jaixo zan!
Ongi-etorri Imanol!
Zure zain genden! Oin baj, kriston
ekipua gara! Muxu goxo asko,
etxekuk eta lagunak.

jaiotakoak

MIREN BERNEDO TXURRUKA



hildakoak

JOSE CASASECA RODRIGUEZ



LEHIAKETA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** Argia astekarian hilabeterako harpidetza.



AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:** Begoña Alberdi

► **Juan Jose Cruz**, herriko taxi gidaria da aurreko aleko argazkixan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egitten da. Ikusi pertsonaia guztiak Flickr-eko Pil argazkiak-en.

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Asun Aranda

OROITZAPEN TXARRAK ESTAZIÑUAN ERRETZEN ZIRANEKUA

Oin dala ez urte asko Bodega tabernakuak eta auzoko lagunak antolatuta, San Juan gaba Estaziño kalian ospatzen zan. Ekitaldi herrikoi eta politta zala dauke akorduan sasoi haretan antolatzaile lanetan jardun zebenak. Arratsaldian txokolatia prestatzen zeben Bodegan, gero, auzotar daneri banatzeko. Jaixa umien jokuekin zabaltzen zan eta hasi orduko koloredun globuak kolorez janzten zeben parkia. Jokuen ostian banatzen zan txokolatiakin izugarri gozatzen zeben herriko txikixenak eta nagusixak be pozik. Holako gau magikuan, bialek kanposanturainoko sua pizten zeben eta Kintanilla soinuoliak baztar danak musikaz alaitzen zittuan, aspertu arteko dantza saiua eskainiz. Erretratu hau San Juan bezperan bertan, auzoko nagusixak omentzeko ekitaldixan jasota dago. Urte honetan Miren Gabilondo eta Narcisa Elizburu izan ziran omenduak eta bakoitzak lora sorta bana jaso zeban opari.


Argazkixan

Ezkerretik eskumara: Maite Kintanilla, Esther Altuna, Iñaki Kintanilla, Miren Gabilondo (Unamunokua) †, Asun Nuñez eta Narcisa Elizburu †.



nazioen mundua

Nazioen Mundua hiri ekimenak aurkeztzen du:



Ekainak 29
barixakua

22:15ean, Zinean

GAZTA ZATI BAT

"A PEACE OF CHEESE"

ZUZENDAKIA JON MAIA | ZUZENDAKI ALERDIA ERIZ ZAPIRAIN | ERROKATZEA NAZIOEN MUNDUA
KOPIA JON MAIA | KOPIA ERIZ ZAPIRAIN | ERROKATZEA NAZIOEN MUNDUA | PÍXEL | ERROKATZEA
JUANTXO SARDON | KOPIA XABIER SOLANO | ERIZ ZIGOR LANPRE | ERROKATZEA ONINART

oninart



pixel



www.gaztazati.net | www.soralluzeko.com



PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

TXURITXU

Zuekin
gozatzen

943 75 24 43

Arreba 10n, Bolso 27 behean



**Soraluzeko
Kooperatiba
Elkartea**

1910etik

943 75 13 45

MABE
ILEAPAINDEGIA



**ESTETIKA
SOLARIUM**

Errebal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE



Javier Alberdi



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carniceria
autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

**TXURRUKA
JATETXEA**

www.txurruka.com

943 75 15 81





Soraluzeko Euskal Jaiak 2012

